

Nafarroako Esaera Zaharrak. Azpilkueta.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Azpilkueta.

- 2170** *Kanpoan txori ta etxean bele.*
Beste lekuetan: Kanpoan uso ta etxean otso. Oihenart-ek: "Kanpoan urzo, etxean bele" (107).
- 2112** *Ama Birjiña martxoko: ni mendian larrez aseko.*
Ola esaten ardiak.
- 2127** *Baztandarra tuku tuku, gazna erre-yale: sura gan (joan) ta bat ere gabe.*
Gazta zotz baten muturrean jarri ta su gaiñean erretzen ari denean, askotan sutara erori, ta baztandarra gabe gelditzen (Azpilkuetan artua).
Oihenart-ek ola dakar: "Gizon hebainak gasna errerik nai: hautsera erori, eta egon gaberik" (196).
- 2154** *Ezezagunak erosi dezala gure mando urdiña.*
Ez bide zen ain fiña ta baliosa.